

SARRERA - AURKEZPENA



Leioako ekintzaile talde bat gara. ADE ikasketak amaitu berri ditugu eta unibertsitatetik ateratzerakoan, arropa denda bat sortzeko ideia bururatu zitzaigun. Marken prezio altuak ikusteaz nekatuta, **marka propioa** sortzea erabaki dugu I.B.A. deitutakoa.

Gure arropak berrerabilitako eta material ekologikoz eginda daude. Beste marka batzuetatik bereizten gaituena gure prezioak (kalitate/dirua) kontuan izanda dira, aurrekontu guztietarako arropa eskaintze dugula da. Gainera, gure bezeroei tratamendu estua eta pertsonalizatua jasotzeko aukera ematen diegu.

Arropa denda honen kokalekua kultur etxearen inguruan izango da, leku honek jendez beteta dagoelako. Denda edo lokal hau lonja batean kokatuko da.

